



**2014-2020 AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEAREN  
ESTRATEGIA PLANAREN AURKEZPENA  
PRESENTACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE LA  
EURORREGIÓN AQUITANIA-EUSKADI 2014-2020**

2014-12-19 Hendaia 19-12-2014

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Bonjour a tous, Euroorregioaren presidente ohia, Euroorregioaren ordezkari nagusiak, Kontseiluko ordezkari nagusiak, asanbleako ordezkariak, Akitaniako presidente eta kontseilariak, Eusko Legebiltzarraren ordezkari, Eusko Jaurlaritzaren sailburu, asanblea osatzen duzuen ordezkariok, mugaz gaindiko udalerrietako alkate jaunak, jaun andere guztiok, egun on guztiok.

Rousset presidenteak eta biok harreman oparoa izan egin dugu azken bi urteotan. Badaki Euroeskualdea garrantziko proiektua dela guretzat. Horregatik gaurkoa niretzat ere, egun handia da, garrantzitsua. Gure harremanetan Rousset eta bion arteko harremanetan, lehen eta geroa seinalatu nahi duen eguna.

Egin-eginean ere, gure aliantzaren izateko arrazoia zehatz-mehatz erakusten duen Plana aurkezten dugu, Mark Moulinek metodologia aurkeztu egin du eta Rousset presidenteak bi ardatz azaldu dizkigu, partekatzen dugun borondate politikoaz harago egindako plan bat. Estrategia partekatu batean gauzatu nahi izan dugu borondate hori. Lehen aldia da lankidetzarako Plan Estrategiko bat dugula, 2020. urtera begira. Partekatutako ibilbide-orria dugu, gure harremanak sendotu, lankidetzan jardun eta elkarrekin hazteko.

He mantenido con el presidente Rousset una fructífera relación en estos casi dos años, año y medio largo. Sabe que la Euroregión Aquitania Euskadi es importante en nuestro proyecto, como así lo ha manifestado también al final, ante mi preocupación por la reestructuración o la reforma de las regiones en la República Francesa.

Hoy es pertinente recordar el compromiso que adquirí en el Discurso de investidura como Lehendakari de Euskadi en diciembre de 2012. Dije así hace dos años: “Formamos parte de Europa, de una Europa que ha avanzado en su integración desde el respeto a la diversidad. En este marco debemos impulsar la cooperación transfronteriza y la Euroregión”.

Hemos querido materializar esta voluntad en una estrategia compartida. Contamos, por primera vez, con un Plan Estratégico de cooperación transfronteriza que mira a 2020. Contamos con una hoja de ruta compartida para crecer juntos. Contamos con una experiencia de colaboración y con las personas que la hacen posible. Este Plan ha contado con la participación de más de 300 personas que creen en la potencialidad de este instrumento al servicio de nuestra aspiración: crecer juntos en Europa. A todas estas personas, a las instituciones y entidades que representan, les agradezco y les agradecemos el trabajo realizado. Contamos con una base sólida para crecer.

Este Plan es la referencia que aglutina las prioridades de cooperación transfronteriza. Está al servicio de los agentes socioeconómicos de este territorio y define el papel de la Eurorregión. Vamos a trabajar en la línea marcada por la Estrategia 2020 de la Unión Europea en pos de un crecimiento inteligente, sostenible e integrador.

- Inteligente porque se desarrolla en una economía basada en el conocimiento y la innovación.
- Sostenible al promocionar una economía competitiva que utiliza más eficazmente los recursos.
- Integrador al fomentar una economía con un alto nivel de empleo que redunde en la cohesión económica, social y territorial.

El Plan propone un horizonte de trabajo común hasta 2020. Está basado en la experiencia de Aquitania y Euskadi desde que en 1989 se firmó el primer Protocolo de Colaboración.

Este Plan nos posiciona en el actual contexto de construcción e integración europea propuesto en la Estrategia 2020. Nos sentimos identificados con este espíritu de integración y asumimos una política de cohesión europea de la que queremos sentirnos destinatarios y también protagonistas. Una política de cohesión que se sustancia en compromisos concretos. La Unión Europea invierte en cohesión y apuesta por la cooperación territorial. Hasta 2020 esta inversión va a contar con 8.949 millones de euros.

Este Plan es útil porque nos ofrece las herramientas de colaboración para generar proyectos transfronterizos, para acceder a estos fondos comunitarios.

Plan estrategikoak, era berean, argi erakusten du Europako Arku Atlantikoaren alde egiten dugun apustua. Sendotu egiten du gure kokalekua Atlantikoaren itsasertzean eta Pirinioetako lurralde guztietan. Kokagune horretatik, bi helburu plazaratzen ditugu:

-Lehenengoa mugaz haraindiko lankidetzak bizkortzeko faktore bat da. Plan honek "palanka-eragina" du proiektu partekatuak sortzeko.

-Bigarrena, mugaz gaindiko aktore bihurtzen da. Proiektu hezurmamitzaileak, balio erantsidunak, abiarazten ditu, Akitaniako Eskualde Kontseiluaren eta Eusko Jaurlaritzaren politiken bat egitearen fruitu.

Hazteko aukera emango digute bi helburu horiek.

Badugu beraz, 2020ra arteko plana. Badugu 8 milioi euro inguruko konpromiso ekonomikoa. Badugu enpresen, unibertsitateen eta zentro teknologikoen lankidetzak.

Hain zuzen ere, martxan ditugu jada lankidetzak-proiektu batzuk, hala nola Euroeskualdeko Bikaintasun Campusa, joan den irailean aurkeztu genuena. Baita ere, aste honetan bertan Osasun arloan sinatu dugun Memoranduma. Plan berria proiektuak abiarazteko "palanka" bat da. Alor publikoak eta pribatuak parte hartzeko proiektuak. Lurralde-lankidetzarako proiektuak.

Nuestro objetivo es reforzar el posicionamiento de la fachada atlántica y del territorio pirenaico en el marco europeo. Para ello necesitamos proyectos compartidos.

El Plan es una "palanca" para activar nuevos proyectos de participación público-privada. Proyectos que nos pueden permitir acceder de forma más eficaz a programas como el "Espacio Atlántico", el Programa operativo de los Pirineos o al Horizon 2020, el mayor programa marco de investigación e innovación en la historia de la Unión Europea. Este Plan Estratégico nos ofrece por lo tanto nuevas oportunidades.

Amaitzeko, Plan Estrategiko honen lau erronka nagusietatik bi aipatuko ditut: Euroeskualdeko herritartasuna eta gobernantza.

Maastrichteko Tratatuak martxan jarri zuen Batasunaren barruko mugen desagertzea. Erabaki politiko horren ondorio administratiboa aduanak desagertzea da. Hala ere, zailagoa da mugak benetan desagertzea, hori da benetako erronka. Planak barne hartzen du "muga-efektu" hori gure buruetatik kentzeko desafioa. Elkar ezagutzea erraztea proposatzen du. Horretarako, gure

hizkuntzak ezagutzea azpimarratzen du; batez ere, euskara, nortasun berezia ematen baitigu. Baita ere kultura-aniztasuna bultzatzea. Eta gazteriaren aldeko apustu sendoa egitea, mugarik gabeko etorkizunaren protagonista gazteria izango dalako.

He querido terminar con una mención a dos de los cuatro retos principales de este Plan Estratégico: la ciudadanía eurorregional y la gobernanza.

El Plan impulsa la ciudadanía eurorregional, asume el reto de superar el “efecto frontera” de nuestras mentes. Propone facilitar el conocimiento mutuo, eliminando las barreras que subyacen en las conciencias; avanzar en el conocimiento de nuestros idiomas, especialmente el euskera; impulsar la diversidad cultural; y apostar por la juventud, protagonista de un futuro sin fronteras ni barreras.

El Plan afronta también el reto de la gobernanza, consciente de que la Eurorregión no es el único actor institucional de la Cooperación Transfronteriza a ambos lados del Bidasoa. Todas las instituciones, en el ejercicio de sus competencias, impulsan y desarrollan políticas y proyectos de cooperación. Este Plan está dirigido a todas estas instituciones, con un mensaje de colaboración y participación, a través de un Foro que aglutine todos nuestros marcos de actuación. Al fin y al cabo, debemos conjugar nuestros esfuerzos en favor de la cooperación transfronteriza que deseamos impulsar juntos.

Lan honetan parte hartu duzuen guztion ahalegina eta gogoia aitortu eta eskertu nahi ditut, berriro ere. Euroeskualdea indartzea lehentasun bat da guretzako, gure etorkizuna Europa indartsuago batetan dagoelako.

Aujourd’hui c’est le signal de départ, le feu vert pour une nouvelle étape dans les relations entre l’Aquitaine et l’Euskadi.

Esker mila eta izan untsa!